PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

GIPUZKOAKO ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZA-ZENTROETAN SEGURTASUNAREN, PREBENTZIOAREN ETA ARRISKUEN KUDEAKETAREN EREDU INTEGRALA EZARTZEKO PLANA DEFINITU ETA ABIAN JARTZEKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA KONTRATATZEA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da laguntza teknikoko zerbitzu bat ematea Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuari (aurrerantzean, ZGPD), **Gipuzkoako Lurralde Historikoan laguntza eta zaintza beharrak dituzten adinekoentzako egoitza-zentroetan segurtasun, prebentzio eta arriskuen kudeaketa eredu integrala ezartzeko plana definitu eta gauzatzen hasteko** (aurrerantzean, segurtasun eredu integrala).

Zerbitzuaren helburua da Departamentuari eta egoitza-zentroei **esparru operatibo komuna**, tresnak eta laguntza teknikoak ematea, ingurune fisikoei eta antolaketa-inguruneei nahiz arreta- eta zaintza-praktikei lotutako arriskuak identifikatu, prebenitu eta kudeatzeko, pertsonen segurtasunaren, autonomiaren, ongizatearen eta eskubideen arteko oreka egokia bermatuz.

CPV Kodea:

- 85312300-2 Orientazio eta aholkularitza zerbitzuak.
- 71317000-3 Arriskuak babesteko eta kontrolatzeko aholkularitza zerbitzuak.

2. ZERBITZUAREN IRISMENA ETA JARDUERA-EREMUA

Zerbitzua Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sareko adinekoei arreta emateko egoitza-zentroen eremuan emango da (zentro propioak, itunduak eta kontratatuak), hargatik eragotzi gabe izaera orokorreko zenbait jarduketek zeharkako irismena izatea sistema osoarentzat.

Kontratuak barne hartzen ditu:

- Proiektua **planifikatzea eta abiaraztea**, egoitza-zentroei zuzendutako **informazio- eta sentsibilizazio-jardunaldi** bat egitea barne.

- Segurtasunaren, prebentzioaren eta arriskuen kudeaketaren eredu integrala ezartzeko prozedura komun bat definitzea, ZGPDk **definitutakoa, zentro guztietan aplikagarria.**

- **Autobabes-planei dagokienez, zentroen egoeraren diagnostikoa.**

- Zentroei laguntzea autobabes-planak ezartzen.

- Ezarpen-mailari eta azken txostenei buruzko balorazioa. Txosten horietan, plana sendotzeko eta etorkizunean garatzeko gomendioak egingo dira.

3. XEDEA OSATZEN DUTEN FASEAK ETA ZEREGINAK DESKRIBATZEA

Kontratuaren xedea behar bezala gauzatzeko, zerbitzua jarraian deskribatzen diren faseetan egituratuko da. Horiek guztiek bat etorri beharko dute segurtasun-eredu integralarekin, bai eta arlo honetan aplikatzekoa den indarreko araudiarekin ere (bereziki, 126/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoen egoitza-zentroei buruzkoa).

Fase bakoitzean jasotako atazak gutxienekoak eta nahitaezkoak dira, eta entitate esleipendunak egokitzapen metodologikoak edo jarduketa osagarriak proposatu ahal izango ditu, betiere Departamentuaren balidazioa badute eta kontratuaren xedea aldatzen ez badute.

0 Fasea. Proiektua planifikatzea eta abiaraztea.

Fase honen helburua zerbitzuaren antolaketa-eta metodología. oinarriak ezartzea da.

Entitate kontratistak honako hauek egin beharko ditu:

- **Lan plan xehatu bat egitea**, honako hauek jasoko dituen: faseak, zereginak, kronograma, lantaldearen dedikazio zenbatetsia eta departamentuarekin koordinatzeko sistema.
- Kontratuaren xederako garrantzitsua den **dokumentazioa** identifikatzea eta aztertzea (laguntza- eta zainketa-ereduaren erreferentzia-esparrua, segurtasun-eredu integrala, aplikatu beharreko araudia, zentroen dokumentazio teknikoa, etab).
- **Hasierako bilera bat egitea** departamentuak izendatutako arduradunekin. Bilera horretan lan-plana balioztuko da eta jarraipen mekanismoak zehaztuko dira.
- Egoitza-zentroei zuzendutako **informazio- eta sentsibilizazio hasierako jardunaldi bat** diseinatzea eta gauzatzea, segurtasunaren, prebentzioaren eta arriskuen kudeaketaren eredu integrala eta aurreikusitako ezarpen-prozesua aurkezteko.

1 Fasea. Segurtasun-eredu integrala ezartzeko prozedura erkidea.

Fase honetan, zentroetan eredua ezartzeko esparru operativo komuna zehaztuko da.

Entitate kontratistak honako hauek egin beharko ditu:

- Segurtasuneko, prebentzioko eta arriskuen kudeaketako eredu integrala ezartzeko prozedura komuna definitzea, egoitza-zentro guztietarako baliagarria, honako hauek barnean hartuta:
  - Jarduteko printzipioak eta irizpideak.
  - Kontuan hartu beharreko arriskuen tipologia (arrisku kolektiboak, arretarekin lotutako arriskuak, arrisku indibidualak, antolamendu-arriskuak, etab.).

- Inplikatutako eragileen rolak eta erantzukizunak.
  Arriskuak identifikatu, aztertu eta lehenesteko oinarrizko tresnak.

- Aldizkako jarraipena eta berrikuspena egiteko mekanismoak.

➢ Prozedura modu operatibo, argi eta aplikagarrian formulatzen dela ziurtatzea, ikuspegi kontzeptual hutsak saihestuz.

➢ Prozeduraren dokumentu tekniko bat egitea, Departamentuak baliozkotuko duena eta egoitza-zentroetara zabalduko dena.

2. Fasea. Autobabes-planen eremuan zentroek duten egoeraren diagnostikoa.

Autobabesari dagokionez, fase honen helburua da zentroen hasierako egoera ezagutzea.

Entitate kontratistak honako hauek egin beharko ditu:

➢ Zentro bakoitzak autobabes-planei buruz duen **dokumentazioa aztertzea**.

➢ **Zentro bakoitzeko diagnostiko tekniko bat** egitea, honako hauek identifikatzeko:

- Autobabes-planen eguneratze-eta egokitze- maila.
- Plan horiek zentroko antolaketan eta eguneroko praktiketan integratzea.
- Hautemandako indargune, gabezia eta arrisku nagusiak.

➢ Zentro **bakoitzeko diagnostiko-txosten bat** egitea, teknikoa eta orientatzailea, bai eta arlo horretako **sektorearen txosten orokor** bat ere (autobabes-planak).

3. Fasea. Zentroei laguntzea autobabes-planak ezartzen.

Fase honetan zentroei zuzeneko laguntza emango zaie autobabeseko planak behar bezala ezartzeko.

Entitate kontratistak honako hauek egin beharko ditu:

➢ **Prestakuntza- eta trebakuntza-ekintza**k diseinatzea eta sustatzea, zentroetako pertsona guztiek autobabes-planak ezagut ditzaten.

➢ Zentroetara sartzen diren langileen hasierako prestakuntzarako **prestakuntza-pilulak** egitea, segurtasunaren eta arriskuen prebentzioaren eredu integralarekin lerrokatuta. Pilula horiek zentro guztien eskura jarri beharko dira.

➢ **Zentroen eta suhiltzaileen parkeen arteko koordinazioa sustatzea**: JUPa egoitza-zentroa kokatuta dagoen eremuko suteak itzaltzeko zerbitzura eta eskumena duen administrazio publikoko organora edo organoetara bidaliko da.

4.Fasea. Ezarpen-maila, azken txostenak eta proiektuaren itxiera baloratzea.

Fase honen xedea da egindako aurrerapenak baloratzea eta ondorioak ateratzea eredua sendotzeko.

Entitate kontratistak honako hauek egin beharko ditu:

- Autobabes planen **ezarpen-maila** baloratzea zentroetan, egindako lanetatik abiatuta.

- **Amaierako txosten** orokor bat egitea, honako hauek jasoko dituena:

  -Egindako jardueren laburpena.
  -Emaitza eta ikaskuntza nagusiak.
  -Antzemandako zailtasunak eta faktore bideratzaileak.
  -Segurtasun-eredu integrala ezartzeko prozesua jarraitzeko eta hobetzeko gomendio teknikoak.

- **Azken txostena departamentuari aurkeztea** eta beharrezkotzat jotzen diren itxiera- bileretan parte-hartzea eta beharrezkotzat jotzen diren egin beharreko itzulketak egitea.

4. METODOLOGÍA ETA EGIKARITZEKO EPEA

Lan-metodologia Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuak definitutako eredu estrategikoekin bat etorriz diseinatu eta gauzatu beharko da, horiek baitira kontratua gauzatzeko nahitaezko erreferentzia-esparrua. Bereziki, jarduketa guztiak honako hauekin lerrokatu beharko dira:

- Segurtasuneko, prebentzioko eta arriskuen kudeaketako eredu integrala laguntzetan eta zainketetan. Eredu hori dokumentu honetan definituta dago: "Segurtasunaren, prebentzioaren eta arriskuen kudeaketaren ikuspegi integrala laguntzetan eta zainketetan: ongizatearen eta segurtasunaren printzipioaren aplikazio praktikoa". Dokumentua kontratatzailearen profilean argitaratuko da, lizitazio-iragarkiaren argitalpenarekin batera.

- Gipuzkoako zainketa- eta laguntza-ereduaren erreferentzia-esparrua, estandarretan oinarritua:
  https://www.behagi.eus/files/informes/gfa_modelo_de_cuidados_y_apoyos_es.pdf

Entitate kontratistak zeharka txertatu beharko ditu eredu horiek kontratuaren fase guztien plangintzan, garapenean eta ebaluazioan, eta ziurtatu beharko du benetan aplikatzen direla tresnetan, prozeduretan, prestakuntza-ekintzetan eta lortutako emaitzetan.

Kontratua egikaritzeko gehieneko epea bederatzi hilabetekoa izango da, kontratua formalizatzen denetik kontatzen hasita.

5. PRODUKTUAK ETA ENTREGATZEKOAK

Honako hauek izango dira gutxieneko entregagarriak:

- Lan-plana, ZGPDk baliozkotua.
- Segurtasun-eredu integralaezartzeko prozedura erkideari buruzko dokumentua, ZGPDk baliozkotua.
- Diagnostiko-txostena zentro bakoitzeko, eta sektoreko txosten orokor bat, autobabes-planei buruzkoa.
- Prestakuntza-materialak eta prestakuntza-pilulak.
- Azken txosten orokorra.

6. GIZA-BALIABIDEAK ETA BALIABIDE-MATERIALAK

Kontratua behar bezala gauzatzen dela bermatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak izan beharko ditu entitate kontratistak.

Bereziki, giza baliabideei dagokienez, erakunde kontratistak kontratua gauzatzeaz **arduratuko den pertsona bat** izendatuko du. Pertsona hori arduratuko da kontratuaren baldintzak betetzen direla bermatzeaz, taldea antolatu eta gainbegiratzeaz eta gauzatzearen kalitate teknikoa bermatzeaz, ZPSk zehaztutako ereduen arabera. Pertsona horrek gutxienez 150 orduko prestakuntza izan beharko du (edo baliokidea kredituetan) zentroen kudeaketan eta zuzendaritzan, eta gutxienez 3 urteko esperientzia egoitza-zentroen kudeaketa integralean.

Era berean, esleitutako **lantaldeak** behar diren gaitasunak izan beharko ditu behar bezala gauzatzen dela bermatzeko, zerbitzuaren izaera kontuan hartuta, ezagutza teknikoa eta espezializatua behar baitu. Horretarako, erakunde kontratistak honako hau bermatu beharko du:

1. Kontratua gauzatzen parte hartuko duten profesionaletako batek, gutxienez, titulu hauetakoren bat izan behar du:

a) Arriskuen prebentzioko gai-mailako prestakuntza-zikloa,edo
b) Unibertsitate-irakaskuntzen antolaketa eta kalitatea bermatzeko prozedura ezartzen dituen *irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuan jasotako honako arlo hauekin lotura zuzena duten titulazio akademikoetako batzuk:*
   - Arkitektura, eraikuntza, eraikuntze eta hirigintza, eta ingeniaritza zibila.
   - Industria-ingeniaritza.
   - Industria Ingeniaritza Teknikoa edo maila baliokidea.

2.- Kontratua gauzatzen parte hartuko duten profesionaletako batek, gutxienez, *irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuan (unibertsitate-irakaskuntzen antolaketa eta kalitatea bermatzeko prozedura ezartzen dituena) jasotako arlo hauekin zuzenean lotutako titulazio akademikoren bat izatea:*

a) Portaera- eta psikologia-zientzien arloko karreraren bateko unibertsitate-titulua.
b) Unibertsitate-titulua gizarte-zientzien, gizarte-lanaren, lan-harremanen eta giza baliabideen, soziologiaren, zientzia politikoen eta nazioarteko harremanen esparruko karreraren batean.

Nolanahi ere, kontratuaren xedearekin zerikusia duten gaietan espezializatutako profesionalek (suhiltzaileek, mantentze-lanetako langileek eta abarrek) noizean behin lagundu ahal izango diote lantaldeari.

7. ZERBITZUAREN KONTROLA ETA JARRAIPENA

Departamentuak izendatuko du kontratuaren jarraipenaz arduratuko den pertsona edo pertsonak, eta edozein unetan eskatu ahal izango du kontratua behar bezala gauzatzen dela egiaztatzeko behar den informazioa.

8. JABETZA INTELEKTUALA, KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATUEN BABESA

Kontratua gauzatzeko egindako lan eta dokumentu guztiak Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuaren jabetzakoak izango dira. Entitate kontratistak ezingo ditu erabili, erreproduzitu, hedatu edo ustiatu, ez osorik ez zati batean, agiri horiek kontratu honetatik eratorritako helburuetarako ez diren beste batzuetarako, salbu eta Gipuzkoako Foru Aldundiak berariaz eta idatziz baimena ematen badu.

Halaber, datu pertsonalen konfidentzialtasunari eta babesari buruz indarrean dagoen araudia aplikatuko da.

Donostia, 2026ko martxoaren 5a

Fdo: Begoña Gutierrez Eizagirre,

Zentroen Kudeaketa Integraleko Zerbitzuaren etorkizuneko egoitzarako trantsizio-programaren koordinatzailea